

EDITORIALA

Asmoak asmo...oso berandu gatozkizue. Ez gara, ordea, barkazio eske ihardungo, askotan eroriko bait gara erru berean aurrerantzean ere.

Aurreko aleen eskemari jarraituz eginga da laugarren hau. Halere, badugu zerbait berririk aurkezteko. Ikusiko duzuenek, kolaboratzaileen zerrenda luzatzen doa. Patri Urkizu lehen ere geurekin izan genuen. Oraingoan beste batzuei damaiegu ongi etorria: Patxi Intxaurrendieta musikazaleari, Agustin Lizarazu eta Iñigo Olaizola marrazkilariei, Jon Sarasua eta Xanti Zabala "Lexo" bertsolari-ei eta, azkenik, Joseba Presentación eta Imanol Zurutuza ipuigileei.

Era berean, eta jaso ditugun eritzi eta erreguei kaso eginez, hor duzue solasaldi pare bat herriko bi pertsonairekin: Tomas Garbizu musika konposatzailea eta Joxe Jokin Azkue artzaina.

Herriko arazoak ere seinalatzen dira. Droga munduan gure herrian izan den bilakaeraz berri ematen digu oraintsu sortua den Askagintza taldeak.

A.E.K. Lezoko Euskal Eskolak, bere aldetik, txosten interesgarri bat igorri digu azken orduan bere egoeraz eta lan metodoaz mintzatzen zaigularik.

Eta hainbat eta hainbat gauza bitxi eta jakingarri irakurtzeko egokiera izango duzue orrialdetan aurrera zoazten heinean.

Ekin, bada, irakurtsaioari eta, lehenago eskatu bezala, bidaietaz duzue eritzi eta kolaborazioak denon artean herri aldizkari bat atera dezagun.